

EAE-KO
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN
ARTXIBO NAGUSIAREN
MEMORIA

2017

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

01/ Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1
Arloko arduraduna: 1
Artxibozainak: 3
Artxibozain laguntzailea: 1
Administrazio-laguntzaileak: 2
Administrari laguntzailea: 1
Mandatarari mendekoa: 1

02/ Instalazioak eta ekipamendua

Lakua II eraikina:

156 m²-ko hiru gordailu eta 312 m²-ko beste 6 gordailu, armairu konpaktuekin.

Gamarra eraikina:

15 metroko altuerako 11 korridore robotizatu, bi robotek kudeatutako eta 6.011 m²-ko azalera hartzen duten 25.000 erretilu edukitzailerekin.

Eraikin bietan funtzio anitzeko erreprodukzio-makinak daude (fotokopiagailuak, inprimagailuak eta digitalizagailuak), transpaletak eta dokumentu-kutxak garraiatzeko orgak.

Kontsulta-gelan mikroformak irakurgailu-erreproduzigailu bat, eta hari lotutako PC bat eta inprimagailuak daude; 3 PC, Windows 7 sistema eragilearekin eta AKS/SGA artxibo-kudeaketaren sistema informatikorako sarbidearekin.

Kale Nagusiko eraikina:

Gordailu bat, armairu konpaktuekin.

Andia eraikina:

Gordailu bi, armairu konpaktuekin.

03/ Dokumentu-kudeaketa

3.1. Artxibo Nagusian utzitako agiriak


Gordailuan utzitakoen kopurua: **659**

Gordailuan utzitako kutxen kopurua, guztira: **30.904**

Ekoizlearen arabera banaketa

EKOIZLEA	GORDAILUAK	KUTXAK GUZTIRA	GUZTIAREN %
URAREN EUSKAL AGENTZIA	3	50	0,16
ALOKABIDE	3	599	1,94
AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA	1	114	0,37
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	43	475	1,53
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	210	4.804	15,55
HEZKUNTZA	59	3.475	11,25
ELANKIDETZA	33	407	1,32
EMAKUNDE	1	29	0,10
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	10	996	3,22
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	30	650	2,10
OGASUNA ETA EKONOMIA	28	1.792	5,81
IZENPE	3	671	2,17
KONTSUMOBIDE	13	236	0,76
LANBIDE	8	5.452	17,65
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	104	6.494	21,02
KONTRATU BALIABIDEEN ORGANOAK	1	20	0,06
OSAKIDETZA	22	1.336	4,33
OSASUNA	12	620	2,00
SEGURTASUNA	15	1.117	3,61
SPRI	12	95	0,30
LANA ETA JUSTIZIA	37	1.415	4,57
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	11	57	0,18
GUZTIRA	659	30.904	%100

2011-2017 aldian utzitako kutxa kopurua



3.2. Dokumentu-xahuketak

Artxibo Nagusian egindako xahuketen kopurua: **66**
Artxibo Nagusian guztira suntsitutako kutxen kopurua: **16.477** kutxa
Bulegoko Artxiboan guztira suntsitutako kutzak: **852** kutxa
Kendutako kutxen kopurua, guztira: **17.319** kutxa

Artxibo Nagusiko xahuketa

Ekoizleen arabera xehaturik

EKOIZLEA	XAHUKETAK	KUTXAK GUZTIRA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	8	36
HEZKUNTZA	2	950
ENPLEGUA ETA GIZARTE GAIAK	8	2.121
INGURUMENA, L. P. ETA ETXEBIZITZA	26	6.812
OSASUNA	2	87
LANA ETA JUSTIZIA	20	6.461
GUZTIRA	66	16.467

Bulegoko Artxiboko xahuketak

Ekoizleen arabera xehaturik

EKOIZLEA	XAHUKETAK	KUTXAK GUZTIRA
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	4	36
KONTSUMOBIDE	2	173
INGURUMENA, L. P. ETA ETXEBIZITZA	1	1
OSAKIDETZA	1	77
LANA ETA JUSTIZIA	1	565
GUZTIRA	9	852

3.3. Artxibo Nagusiaren hazkundera


2017ko bukaeran Artxibo Nagusian (Lakua eta lurraldeetakoetan) metatutako hazkundera hau izan da:

Gordailuak, guztira: **807.974 kutxa**

Garbiketak, guztira: **207.901 kutxa**

Artxibo Nagusiko kutxak 2016ko abenduaren 31n: **600.073 kutxa**

Artxibo Nagusiaren hazkundera



3.4. Gordailu robotizatuaren eraikina

Urtarrilean eta otsailean amaitu zen erretilu hutsak 2016an instalatu ziren korridoreetan kargatzen.

Instalazioan guztira 25.979 metalezko erretilu daude, eta 623.469kutxa zuri normalizatu sartzeko edukiera dauka.

2017-12-31n, instalazioan guztira 449.045 kutxa daude, beraz, okupazio osoaren % 72 hartzen dute. Dokumentuak zuri koloreko kutxetan eta marroi koloreko kutxetan gordetzen dira; hortaz, 140.952 kutxa zuri eta 8.374 kutxa marroi gordetzeko leku dago.

3.5. ARTXIBO NAGUSIAN GORDETAKO AGIRIETARAKO IRISPENA

Kontsultak Artxibo Nagusian

Guztizko kontsultak 2017an: 8.105


Ekoizleen eta irispen-sistemaren arabera xehaturik

EKOIZLEA	A.K.S.-TIK KANPOKO KONTSULTAK	A.K.S.-KO KONTSULTAK
URAREN EUSKAL AGENTZIA	33	825
ALOKABIDE	2	0
AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA	0	0
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	55	38
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	835	1636
HEZKUNTZA	291	112
ELANKIDETZA	0	2
EMAKUNDE	0	1
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	1	6
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	146	341
OGASUNA ETA EKONOMIA	64	126
HOBETUZ	0	0
IVAP	0	1
IZENPE	0	4
KONTSUMOBIDE	0	5
LANBIDE	3	56
LEHENDAKARITZA	142	4
INGURUMENA, LURRALDE PLANG. ETA ETXEBIZITZA	733	1885
KONTRATU BALIABIDEEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAK	0	16
OSAKIDETZA	31	33
OSALAN	0	2
OSASUNA	143	44
SEGURTASUNA	79	10
SPRI	12	0
LANA ETA JUSTIZIA	66	74
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	12	100
WISESA	13	120
GUZTIRA	2.661	5.444

Kontsulta motaren arabera xehaturik

KONTSULTA MOTA	2017
Mailegua	5.880
Kontsultak	2.083
Erreprodukzioa	107
Behin betiko baztertzea	35
GUZTIRA	8.105


Kontsulten kopurua 2011-2017 bitartean



Irispen-sistemaren arabera xehaturik

KONTSULTA MOTA	A.K.S.-TIK KANPOKO KONTSULTAK	A.K.S.-KO KONTSULTAK
Mailegua	1.076	4.804
Kontsultak	1.451	632
Erreprodukzioa	99	8
Behin betiko baztertzea	35	0
GUZTIRA	2.661	5.444


Kontsultak: irispen-sistemaren arabera 2011-2017 bitartean



Erabiltzaileen eta irispen-sistemaren arabera xehaturik

ERABILTZAILE MOTA	A.K.S.-TIK KANPOKO KONTSULTAK	A.K.S.-KO KONTSULTAK	GUZTIRA
ADMINISTRAZIOA	1.250	5.420	6.670
HERRITARRAK/IKERKETAK	1.411	24	1.435

Erabiltzaile motaren arabera kontsultak 2011-2017 bitartean



Lurralde Artxiboan egindako kontsultak

Gipuzkoa:

Lurralde Artxiboan, Donostiako Andia kaleko 13. zenbakiko eraikinean, **40** mailegu egin dira, eta Etxebizitza Ordezkaritzari dagozkio.

Bizkaia:

Lurralde Artxiboan, Bilboko Kale Nagusiko 85. zenbakiko eraikinean, **240** kontsulta egin dira: haietako **155** Hezkuntza Ordezkaritzari dagozkio; eta **85**, Lan Ordezkaritzari.

3.6. Barne-kudeaketako jarduerak

Erreprografia

Erreprografia-zerbitzua

Artxibo Nagusiak agiriak erreproduzitzeko zerbitzua eskaintzen jarraitzen du, eta agiri horiek paperean nahiz euskarri digitalean eskuratu daitezke. 2017an, 1.500 euro fakturatu zaizkie ikertzaileei eta herritarrei.

Jarraibideak

Artxibo Nagusian kontsultak egiteko eta gordailuan uzteko eskabide guztiak korporazioaren helbide elektroniko generikoaren bidez kudeatzeko jarraibidea eman da, helbide elektroniko pertsonalen bidez kudeatu beharrean.

Beste jarduera batzuk

Ikertzaileen erregistroa

2012. urtean sortu zen. Guztira **705 erabiltzaile** erregistratu dira. 2017an **42** ikertzaile berrik eman dute izena.

Agiriak txertatzea

2017an, **668** espedientetan gehitu dira agiriak. Andia kaleko Lurralde Artxiboan **1.794** agiri txertatu dira.

3.7. Artxibo Nagusiko informatika-baliabideak

Artxibo kudeaketa sistema (AKS/SGA) - S54B

XML fitxeroen kargatzea

Erregistroak kargatzeko programa horren bidez (jada gordailututa dauden edo transferitzeke dauden erregistroak), artxibatze-sisteman **86.217** erregistro irauli dira aplikazioan 2017. urtean, eta **28.360** kutxetan zeuden.

AKS aplikazioaren ezarpena

Sailkapen-koadroa garatzeko eta beste sail batzuetan aplikazioa abian jartzeko prozesuan aurrera egin da. Gaur egun, sail guztietan egiten dira AKSen bidezko artxiboak, bai eta honako erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta sozietate publiko hauetan ere: ELANKIDETZAN, LANBIDEN, KONTSUMOBIDEN, OSALANEN, EMAKUNDEN, IZENPEN, URA-URAREN EUSKAL AGENTZIAN, IVAPEN, VISESAN, ALOKABIDEN, OSAKIDETZAN ETA SPRIN.

Gaur egun, honako hauek deskribatuta daude AKS/SGA sisteman (garbitutako agiriak ere sartuta daude):

- Artxibo Nagusian: **4.039.914** erregistrori dagozkien **510.454** kutxa.
- Bulegoko Artxiboan: **23.316** kutxa, **728.236** erregistrori dagozkienak.

Hortaz, Artxibo Nagusian gordailututako kutxen % **63** AKS aplikazioan deskribatuta daude (gordailutuko eta garbitutako kutxak dira).

Aplikazioan ezarritako aldaketak

Nabarmentzekoak dira aplikazioan sartutako honako aldaketa hauek:

- Kopia kautoko formatuko digitalizazioa ezartzea.
- Artxibatutako espedienteen aurkibide elektronikoa sortzea.
- Papera ordeztzeko prozesua ezartzea, Dokumentu elektronikoak kudeatzeko politikan ezarritakoari jarraikiz. Espediente elektronikoak sortu dira, prozesuaren ebidentziak jasota.
- Serie bakoitzari lotutako dokumentu motei eta araudiei buruzko informazioa jasotzeko eremuak gehitzea; horren ondorioz, V48B-n jasotako informazioa S54b-ra iraul daiteke.
- Guneen kudeaketa asinkronoa.
- Kopiak ikertzaileei bide elektronikoz bidaltzea.

AKS sistemaren inguruko prestakuntza

IVAPen bidez antolatutako ikastaroekin batera, aplikazioa erabiltzeari buruzko banakako informazioa eman zaie eskatu duten langile guztiei. Teknikariak arduratzen dira esleituta dituzten arlo funtzionalei prestakuntza emateaz.

Artxibo Nagusiko linean kontsultatzeko katalogo publikoa (OPAC) - S54A

OPACen garapena

2017an, OPAC garatzeko behar ziren aldaketak egiten jarraitu da.

Hala eta guztiz ere, artxiboaren web berriaren ezarpena atzerapen handiz egiten ari da, instituzioen webguneen diseinu berria lortzeko aldaketen mende dagoelako. Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza arduratzen da prozesu horretaz, eta oraindik ez du amaitu. Espero da webgunea 2018ko lehen hiruhilekoan funtzionamenduan egotea.

Literalen itzulpena

Sailkapen-koadroko serie-tituluak itzultzen amaitu da, Artxiboaren webgunea funtzionamenduan jartzen laguntzeko. Gainerako deskripzio-elementuen idazkera eta itzulpena berrikusteko zereginak ere egiten jarraitu da (funtsean, azpifuntsean eta sailkapen-koadroaren atalean).

Artxiboko serieen balorazio batzordea – V48B

V48B aplikazio osoa berrikusi da, prozesu batzuek eta gaur egungo dokumentuen kudeaketak ez baitute bat egiten. Besteak beste, honako alderdi hauek berrikusi eta hobetu dira:

- Prozesuetan sinadura elektronikoa sartzea.
- Dokumentuen sarrerak eta irteerak erregistratzea.
- Serieak baloratzeko prozesuen eta bileren kudeaketaren gaineko prozesuei buruzko espediente elektronikoak sortzea.
- Agirien fluxuak zuzentzea.
- Eremuak aplikazio horretan eta AKSn doitzea.
- Garbiketa agiri moten arabera egiteko aukera eta horrek aplikazioan izan dezakeen eragina aztertzen hastea.

ULMA biltegia kudeatzeko sistema eta W17B

Kudeaketa-aplikazioaren aldaketa

Aplikazioan zenbait funtzionalitate ezarri dira, eta honako zeregin hauek egin daitezke:

- Estatistikak sortzea
- Agindu okerrak ezabatzea
- Edukiontzi berrien alta
- Edukiontzi mota berrien alta
- Trafiko buruan eragiketa errazak egitea

Datu-basea migratzea

Bisuki sisteman eta Gamarrako robota automatizatzen duen sisteman geneukan datu-basea urrian migratu genuen Oracle 12c-ra. Migrazioa EJIE-k egin zuen, ULMAren lankidetzarekin.

04/Antolamendua

4.1. Dokumentu-funtsak berriro antolatzeko akta

Hezkuntza-funtsa

Irakasleen atala

Leheneratzeko zerbitzuko langileen laguntzaz, udan Bizkaiko Ordezkaritzak gordailututako espedienteen artean irakasleak ez diren langileenak eta irakasleenak bereizten jarraitu da. 355 kutxa antolatu dira, eta horietan instalazio-unitatea aldatu, dokumentazioaren deskribapena osatu, bikoiztuak ezabatu dira, eta ateratako informazioa AKSra irauli da. 2017an amaitu da lan hori egiten.

Baliabide materialen atala

Eskolen eraikuntzari buruzko serieari dagozkion kutxen inbentarioa egin dugu. Kutxa horiek 80ko hamarkadan utzi ziren gordailuan, eta edukia ez zegoen deskribaturik. Helburua informazio hori AKSn kargatzea da.

Politika zientifikoaren atala

Bilerak egin ditugu zuzendaritzako teknikariekin eta informatikariekin, XML fitxategiak kargatzeko modulua egiteko. Horrez gain, Y44 aplikazio bidez izapidetutako espediente itxien berri eman da.

Hezkuntza Ikuskaritzaren atala

Gipuzkoako Ikuskaritzak Gipuzkoako Ikuskaritzako zentroen serieari buruz utzi dituen kutxa guztien inbentarioa egin da. Helburua informazio hori AKSn kargatzea da.

Saileko gainerako atalak

Arloko artxibozain arduradunak, saileko artxibozainarekin lankidetzan, sailak sortutako serieak berrikusten jarraitu du, kutxak behar bezala kodetzeko eta horiek progresiboki AKSn kargatzeko. AKSn ezarri da PLATEAk izapidetutako espedienteen artxibatzea, eta aplikazio hori bulego gehiagotan ezarri da.

Ogasun funtsa

Kontratazio Atala

Bilerak egin ditugu kontratu-baliabideen organoko arduradunekin, XML fitxategiak kargatzeko modulua egiteko. Horrez gain, aplikazio bidez izapidetutako espediente itxien berri eman da.

Justizia funtsa

Justizia Administrazioaren atala

Doako Justiziaren arduradunekin elkarlanean, identifikazio-fitxak berrikusi dira, COVASADek balorazioa egin dezan. Fitxak azaroko bileran aurkeztu ziren. Jada kontrolatuta dago Justizia Jauregietan egiten den garbiketa; horretarako, lagina hautatu eta gordailutu da.

Prozedura hori arautzen duen dekretu berria idatzi denean, espediente horien iraungitze-datari eta garbiketari buruzko atal bat jaso da.

Justizia Administrazioaren Baliabide Materialen bulegoak egiten dituen obra-espedienteen deskribapenak kargatzen hasi gara, bai bulegoko artxiboan, bai Artxibo Nagusian.

Ingurumen funtsa

Ihobe azpifuntsa

Uztailaren 12an IHOBeko azpiegiturak bisitatu genituen, Bilbon. Haiekin batera erabaki genuen haien artxiboa antolatzea eta artxibatze-sisteman sartzea.

Kanpoko zaintza egiteko enpresa batean utzitako funts guztiak berrikusteko zeregina egiteko, IHOBek konpromisoa hartu zuen enpresa batekin kontratua egiteko, bi fasetan. Hasierako fasea 2017an egitekoa zen, dokumentuen ekoizpena aztertze, eta dokumentuak berrikusten hasteko; gero, bigarren fasean, 2018an, berrikuspena egiten amaituko da. Urrian Gamarrara eraman ziren edukiontzia, lehenengo aldiz. AbyC, Servicios Documentales enpresa arduratuko da haietaz.

Osasun funtsa

Osakidetza azpifuntsa

Bilboko eta Arabako eskualdeek lehen mailako arretan baja emandako pazienteen historia klinikoak gordetzen jarraitu dute. Agiri horiek guztiak AKSn kargatu dira dagoeneko.

Bilboko Amatasun Funtsari buruzko 4 kontsulta egin dira guztira.

Datu-basean Amatasuneko historia klinikoen indize-fitxetako datuak kargatzen amaitu da.

Etxebizitza funtsa

Alokabide azpifuntsa

3.359 espediente barruan zituzten 600 kutxa gordailutu dira, eta ODEI enpresa arduratu da haietaz. Alokabidek kontratatu du enpresa, Artxiboak Gamarran duen egoitzan.

Arloko artxibozain arduradunak sortutako erregistroak kargatu ditu, agiriak Artxibo Nagusian gordailutu ahal izateko.

VISESA azpifuntsa

VISESAko arduradunarekin egin dira bilerak, zerbitzuen katalogo bat eta dokumentu-serie batzuk adosteko, sozietatearen kudeaketa osoa kontuan hartuta. Barneko zein kanpoko prozeduren izapidetze elektronikoa 2018an egiten hasteko asmoa daukate.

Lan funtsa

LANBIDE azpifuntsa

Diru-sarrerak bermatzeko Errentaren arduradunekin egin dira bilerak, herritarrek laguntza hori eskatzeko ematen duten dokumentazioa zenbat denboratan gorde behar den era arrazoituan ezar dezaten. Eztabaida luze izan ondoren, urriaren 19an dokumentu bat jaso genuen, eta, bertan jasotakoaren arabera, ekoizleek adostu dute gehienez ere 8 urtean gordetzea dokumentazio hori.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso izanaren ziurtagiriak ekoizpena aztertze bilerak ere egin dira (ziurtagiriak herritarrek eta erakundeek eskatzen dituzte). Lan-zama handia sortzen dute, eta elkarreragingarritasun-zerbitzu baten bidez bideratu beharko dira. Horrez gain, kopia kautoko formatu bidezko digitalizazioa ere ezarri beharko da Lanbideko bulegoen sarrera-erregistroan.

Bestalde, Lanbideren dokumentu-serieei dagokienez, hainbat bilera egin dira teknikari batzuekin, dokumentu elektronikoak dituzten zerbitzuak eta dokumentu-serieak definitzeko.

Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruz tokiko bulegoetan zegoen dokumentazioa digitalizatzeko proiektuarekin jarraitu da 2017an, kudeaketa-aplikazioan kargatzeko eta, ondoren, Artxibo Nagusira transferitzeko. ODEI enpresak egin du zeregin hori. 2017an, **5.376** kutxa transferitu dira, hau da, guztira **366.947** espediente eta **866.472** dokumentu elektroniko.

Lurralde antolamendu funtsa

Lurralde Plangintzaren atala

Lurralde Antolamenduaren zerbitzuko langileekin egin dira bilerak, dokumentu-serieak zehazteko, eta zerbitzu horrek gordailuan utzi zituen 2.000 kutxa berriro antolatze bidez, AKS ezarri aurretiko irizpideen arabera utzi zituelako. 2018an proiektu hori heldu ahal izango zaiola jo dugu.

Hirigintza funtsa

Lurzoruaaren kudeaketaren atala

Artxibo Nagusiak laguntza teknikoa kontratatu zion AbyC, Servicios Documentales enpresari, Lurzoruaaren Kudeaketaren zerbitzuak sortzen dituen dokumentu-serieak aztertzeko eta Artxibo Nagusian jada gordailuan utzita dauden 2.000 kutzak AKSren irizpideen arabera antolatzeko.

Prozedurak zehaztu, erregistroak berrikusi eta berriro kodetu ziren, eta datu nahikorik ez zuten kutzak ere aztertu zituzten. Gainera, datu-baseak egin zituzten, datu-baseak aplikazioan kargatu ahal izateko. Aldi berean, bulegoko artxiboa kudeatzen duten langileei jarraibideak eman zitzaizkien, AKS sistema berriaren arabera erabiltzen eta elikatzen jakin dezaten.

Espero da datuen karga 2018ko urtarrilean amaituta egotea.

Lehendakariordetzaren funtsa

Gobernu Idazkaritzaren atala

Gobernu Kontseiluak 1979tik 2014a arte egin dituen akten ziurtapenak eta Arartekoaren dokumentuak antolatu, inbentariatu eta AKSn kargatu dira. Akten kopia digitalizatuak ere kargatu dira.

Araubide juridikoaren atala

Araubide Juridikoaren Sailburuordetza administrazio elektronikoan behar bezala txertatze aldera, Artxibo Nagusian lantalde bat eratu zen. EJIEk eta sailburuordetzak berak prozedurak, serieak eta behar diren dokumentu motak aztertu ditu.

4.2. Dokumentu-kudeaketaren antolaketa

Dokumentuak kudeatzeko eredua - Dokusi

EJIErekin, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzarekin (DIT) eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin (DACIMA) batera lan egin da Dokumentuak Kudeatzeko Ereduaren garapenean. Ereduari **Dokusi** deitzen zaio.

Maiatzaren 12an Baliabide Orokorren Zuzendaritzarekin (Fernando Uriondorekin eta Iruñe Zumaldekerekin) eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin (Javier Bikandirekin e Iñaki Ortizekin) egin zen bilera bat, honako hauek nola antolatu aztertzeko: Zuzenean zerbitzuko langileei eta izapidegileei oinarritzeko dokumentu-kudeaketari buruzko prestakuntza, epe luzeko kontserbazioa eta serie horizontalak artxibatzea.

2013ko irailetik Artxibo Nagusia arduratzen da Dokusiren dokumentu-tipologiaren, fitxategi maisuen eta Dokusiren Batzorde Teknikoaren idazkaritzaren mantentze-lanez. Dokumentu motak berrikusten jarraitu dugu, eta ENI moten arabera moldatu dira. Horrez gain, prozedura-familiak ere berrikusi dira.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin batera lan egin dugu Dokusiren fitxategi maisuetan zehaztutako prozedurak eta zerbitzuen katalogoan zehaztutako prozedurak zein zerbitzuak bat etor daitezkeen, bai eta PLATEA erabiltzaileei ematen zaien prestakuntza ere, espediente elektronikoak artxibatzen jakin dezaten. Digitalizatu behar diren zerbitzuak batera aztertzeko protokolo bat egin da.

Dokusiren Batzorde Teknikoak bederatzi bilera egin ditu, eta kodea esleitu zaie 94 dokumentu-serieri.

Sektore publikoa Administrazio elektronikoan sartzea

Artxibatze-sistema eta izapide elektronikoak egiteko azpiegiturak kudeatu ahal izateko, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzan kudeaketak egin genituen, behar diren egitura organikoak Xlnets barruan sortzeko. Egitura horiek VISESA, ALOKABIDE, SPRI eta IHOBE sozietateei eta horiek bezalako beste sozietate publikoei esleitu zaien. 2017an, VISESAren egitura egin da.

4.3. Dokumentazioaren baloraziorako, aukeraketarako eta dokumentazio-ra jotzeko batzordea (COVASAD)

Legealdiaren aldaketa dela eta, Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordeko kideak berriro izendatu dira.

2017ko azaroaren 28an bilera bat egin zen, eta 22 serie aztertu ziren; Justizia, Etxebizitza, Herrizaingo, Garraio eta Hezkuntza sailen funtsetakoak, zehatz-mehatz.

2017ko ekainaren 5ean, EHAA argitaratu zen Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuaren 2017ko maiatzaren 23ko Agindua, Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora jotzeko Batzordeak (COVASAD) adostutako Gizarte Gaien, Etxebizitzaren, Barne Sailaren, Ogasunaren eta Lehendakariordetzaren funtsen kontserbazio-egutegiak onartzeko. 2016ko abenduaren 15eko bileran aztertutako serieei buruzkoa da.

05/ Kanpo-harremanak eta prestakuntza

Bisitak Artxibo Nagusira (Gamarrako eraikina)

Artxiboen Nazioarteko Egunaren ospakizuna dela eta, ekainaren 9an bisitaldi gidatuak antolatu ziren Gamarrako eraikinera, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Guztira, 25 pertsona hurbildu ziren.

Egun berean, bisita orokorra egin baino lehenago, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko goi-kargudunek, losu Erkoreka sailburua ere barne hartuta, Artxibo Nagusiaren Gamarrako azpiegiturak bisitatu zituzten. Bertan azaldu zieten eraikinaren egitura, instalazio robotizatuaren funtzionamendua, artxibatze-sistema, artxibatze-lanak eta paperezko dokumentuen eta dokumentu elektronikoen kudeaketa.

Ekainaren amaieran, VISESAko langile guztiek Gamarrako azpiegiturak bisitatu zituzten, bi txandatan.

Bilerak Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioarekin

Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak Arloko Batzordearen dokumentu, espediente eta artxibo elektronikoen lantaldean antolatzen dituen bileretan parte hartzen jarraitu dugu. Euskal Autonomia Erkidegoaren aldetik,

zerbitzuko bi lagunek parte hartu dute: Enriqueta Sesmerok, zerbitzuko arduradunak; eta Irune Zumaldek, Artxibatze Arloko arduradunak.

Bi bilera egin dira bideokonferentzia bidez, eta aurkeztutako agiriak elektronikoki eztabaidatu dira.

Beste erakunde batzuetako teknikariekiko bilerak

Joaquim Llansó jaunak, Nafarroako Gobernuko Artxiboko buruak, eskatuta, Lakuan ekainaren 16an bilera bat egin zen, dokumentuen kudeaketa azaltzeko. Dokumentu elektronikoen bereziki jorratu ziren, bai eta EAEko Administrazio Publikoko artxibatze-sistema ere.

Era berean, azalpenak emateko beste bilera bat egin zen artxibozainarekin eta Legazpiko Udaleko informatikariekin. Bilera ekainaren 23an egin zen.

Azkenik, azaroaren 24an, beste bilera bat egin genuen Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateko artxibatze-sistemaren arduradunekin, gure dokumentuak kudeatzeko sistema, administrazio elektronikoa eta artxibatze-sistemaren aplikazioa haiei azaltzeko.

Dokumentazioa balioesteko eta aukeratzeko Batzordea (COVASED)

Arloko arduradunak Dokumentazioa balioesteko eta aukeratzeko batzordearen bileretako batean parte hartu zuen. Bilera Donostian, 2017ko martxoaren 6an izan zen. Bilera horretan balioetsi ziren COVASADek abenduko bileran egin zituen proposamenak.

Hautaketa-prozesuak

Artxibatze Arloko arduradunak eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko artxibozain-liburuzainak, parte hartu zuten Arabako Foru Aldundiaren Artxibo Zerbitzuko buruaren lanpostua zerbitzu-eginkizunen prozeduraren bidez betetzeko hautaketa-prozesuan, apirilean eta maiatzetan.

Artxibatze Arloko arduraduna IVApek deitzen dituen lan-poltsak osatzeko epaimahaiko buru izendatu zuten. Artxibozainen, liburuzainen eta dokumentalisten kidegoen lan-poltsak ziren. Prozesuan, Liburutegi Arloko liburuzainetako batek, ere parte hartu zuen. Test motako galderak egin zituzten, eta aurkeztutako erreklamazioak erantzun zituzten. Lan horiek guztiak martxotik urrira bitartean egin dituzte.

Emandako irakaskuntza

IVApek antolatzen dituen prestakuntza-jardueren artean, bi ikastaro eman ziren, «Agiriak kudeatzeko tailerra» (*Taller de gestión de archivos*) izenekoak. Gaiak artxibatze-sistema, dokumentuen kudeaketa digitala eta dokumentu elektronikoen tratamendua izan ziren. Artxibo Nagusiko eta EJIEko lankideak hizlari aritu ziren. Guztira, 30 pertsona joan ziren ikastaroetara.

Jasotako irakaskuntza

IVApek antolatu zuen «Administrazioako agiriak kontsultatzeko eskubideari buruzko tailerra» (*Taller sobre el Derecho de acceso en los archivos de la administración*), eta zerbitzuko bost lagunek egin zuten. Luis-Esteve Casellas-ek eman zuen ikastaroa, urriaren 10ean eta 11n.

Lankidetza, Kultura Sailarekin

Gobernu berriaren legegintzako planean *Ley de Gestión Documental Integral y Archivos* (Dokumentuen kudeaketa integralari eta artxiboei buruzko legea) egitea eta onartzea erabaki zen. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren arteko ekimen bateratua izan zen.

Xede horretarako, lantalde bat eratu zen. Hona hemen taldeko kideak: Imanol Agote (2017ko iraila arte, Kultura Ondareko zuzendaria izan zen); Borja Aguinagalde (Dokumentu Ondareko arduraduna), Enriqueta Sesmero (2017ko martxoa arte, Artxibo, Liburutegi, Argitalpen Zerbitzuko arduraduna), Iruñe Zumalde (Artxibatze Arloko arduraduna, eta azaroaren 15etik aurrera, zerbitzuko arduraduna ere bai). Eta geroago, honako hauek ere bai: Mikel Aizpuru (2017ko irailetik aurrera, Kultura Ondareko zuzendaria), Nerea López-Urizarri (Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea) eta Fernando Uribe (Baliabide Orokorretako zuzendaria).

Joratu behar ziren alderdien aurkibidea adostu ondoren, Jose Ramón Cruz Mundet doktorea, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko irakaslea, arduratu zen legearen zirriborroa egiteaz. Zirriborroa abuztuaren 15ean entregatu zen, eta ondoko bileretan aldatu egin da. Aurreikuspenen arabera, 2018ko lehenengo hiruhilekoan amaituta egongo da, eta izapideak egiten hasi ahalko da.

Lankidetzaren, Justizia Administrazioarekin

Bergarako Artxiboan zenbait dokumentu historikoren lapurreta dela eta, prozedura judiziala hasi zen. Prozedura horretan Artxibo Nagusiari agindu zitzaion konfiskatutako dokumentazioa gordetzeko.

Auzi horretan bi aldiz eskatu da hainbat dokumentu entregatzea eta lekualdatzea. Ertzaintzak eskolta eman zuen lekualdaketa. Behin, zerbitzu burua arduratu zen dokumentuak lekualdatzeaz; eta hurrengo aldian, zerbitzu burua izan zena-ak egin zuen. Kasu bietan epailearen jarraibideak bete ziren.

Azken lekualdaketa berriro agindu zuten dokumentu batzuk Artxibo Nagusiari gordetzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarilaren 5a.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018